

Matrikulazioa, tramiteak eta epeak

Ikaslearentzako oinarrizko gida

2022/23 Ikasturtea

OHARRA: gida hau laguntza osagarri bat da, inolaz ere ez du
ordezkatzen Graduako ikasketen gestiorako arautegia





AUTOMATRIKULA

TRAMITEAK ETA EPEAK

AUTOMATRIKULA

Zeinek egin behar du automatrikula?

Lehenengo mailatik gorako ikasleek automatrikula modua erabiliz egingo dute matrikula, interneten bidez.

Kirolean, GrALa besterik ez baduzu matrikulatu behar, ez duzu automatrikularako hitzordurik jasoko. Hitz egin idazkaritzarekin.

Noiz jakingo dut automatrikukarako hitzordua?

Uztailaren 15an eguna eta ordua jakinaraziko dira eta matrikula 2022ko uztailaren 18tik 29era bitartean egingo da.

Nola edukiko dut esleitutako hitzorduaren berri?

Egunaren eta orduaren jakinarazpena internet bidez argitaratzen da ([GAUR](#)). Informazio hori UPV/EHUko zure posta elektronikoko korporatiboan jasoko duzu. Bestalde, zure hitzordua kontsultatu ahal duzu GAUR gestio akademikorako programan duten profilaren bidez.

TRAMITEAK ETA EPEAK

AUTOMATRIKULA

Zein nabigatzaile gomendatzen dira?

Internet Explorer eta Mozilla Firefox nabigatzaileak gomendatzen dira. Beraz, **automatrikula ordenagailu baten aurrean gauzatzea gomendatzen dizugu**, ez zure mugikorraren bidez.

Zein aplikazioaren bidez egin behar dut automatrikula?

Automatrikula GAUR aplikazioaren bidez egin behar da. Aplikazioan sartzeko erabiltzaile izena eta pasahitza behar dituzu.

Eta erabiltzaile izena edo pasahitza gogoratzen ez baditut?

Berriz eskatu beharko dituzu Idazkaritzan automatrikulako epea ireki aurretik. Pasahitz berria lortutakoan, gomendatzen dizugu UPV/EHUko orri nagusiko "Langileak" atalera jo eta jakinarazi zein den zure mugikorraren zenbakia. Hartara, pasahitza ahaztuz gero, mugikorraren bidez berreskuratu genuke ([ikus jarraibideak](#)).

TRAMITEAK ETA EPEAK

AUTOMATRIKULA

Noiz gauzatu dezaket automatrikula?

Esleituta duzun ordutik aurrera edonoiz egin ahal da. Hala ere, zenbat eta beranduago egin, taldea edo hautazko irakasgaiak hautatzeko aukerak murriztu ahal dira.

Nola jasoko dut matrikularen gordekina?

Matrikula egitean sortzen da eta zure posta elektronikora (xxxxx@ikasle.ehu.es) bidaliko dizute.

Eta matrikulan aldaketarik egingo banu, nola jasoko dut gordekin berria?

GAUR aplikazioaren bidez lortu ahalko duzu.

Eta matrikula egitean dokumenturen bat aurkeztu ez badut?

Matrikula egitean aurkeztu gabe utzitako dokumentuak aurkezteko epea 10 egunekoa da

TRAMITEAK ETA EPEAK

AUTOMATRIKULA

Eta beka eskatu behar badut?

Eusko Jaurlaritzak erabaki du tramitazio erabat elektronikoaren derrigortasuna. Informazio gehiago: <https://www.ehu.eus/eu/web/sarrera-acceso/bekak>

BEKAK
BECAS



BEHIN MATRIKULA GAUZATUTA

TRAMITEAK ETA EPEAK

MATRIKULAREN ALDAKETA EDO TALDE ALDAKETA

Eta matrikulan aldaketaren bat egin behar badut?

Idazkaritzan eskatu beharko duzu irailaren 7tik 16ra

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduan bigarren lauhileko irakasgaiekin **matrikula zabaltzeko aukera** eskaintzen da. Aukera baliatu nahi baduzu, Idazkaritzan eskaera egin beharko duzu urtarrilaren 31 baino lehen.

Eta talde aldaketa eskatu behar badut?

Idazkaritzan eskatu beharko duzu irailaren 7tik 16ra

Ohar garrantzitsua

- Sistema informatikoak taldeen arteko desorekak (ikasle kopuruak) sortzen baditu, Dekanotzak oreka bilatzeko beharrezkoak diren konponbideak gauzatuko ditu.

TRAMITEAK ETA EPEAK

MATRIKULA BALIOGABETU

Eta matrikula baliogabetu nahi badut?

Matrikula baliogabetzeko epea abenduaren 31ra artekoa da.



Ez dira ordaindutako tasak bueltatuko



KREDITUEN AITORPENA

TRAMITEAK ETA EPEAK

KREDITUEN AITORPENA

Eta noiz eska dezaket gauzatutako beste ikasketa batzuen kredituen aitortpena?

Irailaren 7tik 16ra eska dezakezu.


JFKZetako graduan, amaitzen ari diren ikasleek 2023 maiatzaren 29etik ekainaren 9era ere aurkeztu ahal izango dituzte

Eta jarduera osagarriengatik eginiko kredituen aitortpena?

Irailaren 7tik 16ra eska dezakezu.

Zeintzuk dira aitor daitezkeen kredituak?

Gomendatzen dizugu Graduko ikasketetan kredituak transferitzeko eta onartzeko Arautegia errebisatzea





ERRENDIMENDU HANDIKO TUTORETZA PLANA



TRAMITEAK ETA EPEAK

ERRENDIMENDU HANDIKO TUTORETZA PLANA

Zer da Goi Mailako eta Errendimendu Handiko Unibertsitate Kirolarientzako Tutoretza Plana?

Hemen ezagutu dezakezu behar duzun informazioa.

Baldintzak betetzen baditut, noiz eska dezaket Tutoretza Planean sartzea?
Urriaren 1era arte eska dezakezu.

Zein da Tutoretza Planaren irakasle koordinatzailea?

Hezkuntzan: Igor Camino Ortiz de Barrón
(igor.camino@ehu.eus)

Kirolean: Raúl Martínez de Santos
(raul.martinezdesantos@ehu.eus)





LEKUALDATZEAK



TRAMITEAK ETA EPEAK

LEKUALDATZEAK

Eta lekualdatze eskaera aurkeztu nahi badut, noiz egin behar dut?

Ekainaren 20etik uztailaren 1ra eskatu behar duzu Idazkaritzan

Zeintzuk dira lekualdatzea eskatu ahal izateko baldintzak?

- Lehenengo maila oso-osorik gaindituta izatea edo 60 kreditu.
- Iraute-arauetan zehaztutako deialdiak agortuta ez izatea.

Baldintzak betetzen badituz, lekualdatzea onartuko da?

Baldintzak betetzeak ez du suposatzen onarpen automatikoa. Dekanotzak ebatziko ditu Akademi Antolakuntzako Batzordeak ezarritako irizpideak kontuan hartuz.





**IKASKETAK BERRARTZEA EDO
IKASKETA DESBERDINAK ALDI
BEREAN EGITEA**



UTZITAKO IKASKETAK BERRARTZEA EDO IKASKETA DESBERDINAK ALDI BEREAN EGITEA


TRAMITEAK ETA EPEAK

Eta garai batean utzitako ikasketak berriro hartu nahi badituz?

Ikasketak berriro hartu nahi badituzu, ikastegiko idazkaritzan zuzenean aurkeztu beharko duzue eskaria 2022eko ekainaren 20etik uztailaren 1ra bitartean, eta Dekanoak hartuko du eskariari buruzko erabakia.

Eta ikasketa desberdinak aldi berean egin nahi badituz?

Eskaera Idazkaritzan egin dezakezu; horretarako bi epe daude: ekainaren 20etik uztailaren 1ra (1. mailatik gorako mailakoentzat) edo irailaren 1etik 7ra (1. mailako ikasleentzat)





DEIALDIA AURRERATZEA

TRAMITEAK ETA EPEAK

DEIALDIA AURRERATZEA

Zeinek eska dezake deialdia aurreratzea?

Ikasketak amaitzeko gehienez 30 kreditu falta duten ikasleek. Ezin izango da aurreratu lehenengo matrikulako krediturik.

Ez zaio aurreko paragrafoan zehaztutakoa ezarriko Gradu Amaierako Lanari, matrikularako eta defentsarako arau bereziak dituelako eta era berean, lan hori ez da kontutan hartuko ikasketak amaitzeko ikasleari falta zaizkion kredituak zenbatzean.

Azterketa hori matrikularen arabera irakasgai, talde eta deialdiaren ardura daukaten irakasleek egingo dute.

Noiz eska dezaket deialdia aurreratzea?

Hezkuntzan

2022eko urriaren 17tik azaroaren 30era: ohiko deialdia urtarrilera aurreratzea

2022ko otsailaren 27tik martxoaren 31era: ez ohiko deialdia maiatzera aurreratzea (1., 2. eta 3. mailak)

Kirolean

2022eko urriaren 17tik azaroaren 30era: ohiko deialdia urtarrilera aurreratzea



EBALUAZIO BEREZIA

TRAMITEAK ETA EPEAK

EBALUAZIO BEREZIA

Zeintzuk dira irakasgai bat ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko eskaria egiteko baldintzak?

1. Ebaluazio bereziaren bidez gainditu nahi den irakasgaiari matrikulatuta egotea eskaria egiten den ikasturtean.
2. Titulazioan ebaluazio bereziaren bidez gainditu daitezkeen kredituen % 90 gaindituta edukitzea. Ezin izango da inola ere ebaluazio berezirik eskatu Gradu Amaierako Lanerako eta Practicumerako.
3. Gehienez ere, titulazioko kreditu guztien % 6ri dagozkion irakasgaien ebaluazio berezia eskatu ahal izango da. Salbuespena izango da irakasgai bakarrak titulazioko ECTS kredituen % 6 baino gehiago izatea: horrelakoetan irakasgaia ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko eskaria egin ahal izango da.
4. Ikasleak ebaluazio bereziaren bidez gainditu nahi duen irakasgaiko hiru deialdi, behintzat, erabilita izatea.
5. Deialdietakoren batean, gutxienez, hiru puntuko kalifikazioa lortuta izatea.

TRAMITEAK ETA EPEAK

EBALUAZIO BEREZIA

Baldintzak betetzen baditut, automatikoki gaituko da irakasgaia?

Baldintza hauek betetzeak ez du esan nahi automatikoki irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gaituko direnik. Gaitzea edo ez gaitzea kasuan kasuko epaimahai bereziak adostu beharko du, [honako irizpide hauen arabera.](#)

Noiz eskatu beharko nuke irakasgai bat ebaluazio bereziaren bidez gaitua izatea?

Eskariak aurkeztu ahal izateko bi epe daude: irailaren 1etik 5era eta 2022ko martxoaren 1etik 5era

Eta noiz ebatziko dira ebazpenak?

Irailean aurkeztutako eskariak irailaren 15a baino lehen ebatziko dira, eta martxoan aurkeztutakoak martxoaren 15a baino lehen.

TRAMITEAK ETA EPEAK

EBALUAZIO BEREZIA

Baldintzak betetzen baditut, automatikoki gaituko da irakasgaia?
Baldintza hauek betetzeak ez du esan nahi automatikoki irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gaituko direnik. Gaitzea edo ez gaitzea kasuan kasuko epainahai bereziak adostu beharko du, [honako irizpide hauen arabera](#).

Nois eskatuko beharko nuke irakasgai ebaluazio bereziaren bidez gaitua izatea?

Eskaerak aurkeztu ahal izateko bi epe daude: irailaren 1etik 5era eta 2023ko martxoaren 1etik 5era

Eta noiz ebatziko dira eskaerak?

Irailan aurkeztutako eskaerak irailaren 15 a ba

Matrikulazioa, tramiteak eta epeak

Ikaslearentzako oinarrizko gida

2022/23 Ikasturtea

